



Musika eta sagardo festa Petritegin

by **Nerea Lizarralde** on 2014/12/17 in **KULTURA LABURRAK**

Bigott eta Kokoshka taldeak eramango dituzte Musik & Txotx ekitaldira.

Errege bezperan, urtarilaren 5ean, Astigarragako Petritegi sagardotegian musika eta sagardo festa egingo dute. Musik & Txotx izenarekin bataiatu duten ekitaldia egingo dute aurten ere. Iaz Capsula eta John Berkhout taldeak igo ziren sagardotegian prestatutako agertokira. Aurten, Zaragozako **Bigott** eta **Kokoshka** nafarrak izango dira musika izarrak. Musika entzun eta janariaz dastatzeko aukera izango dute, eusko labela duten pintxoak eskainiko dizkiete ikusleei.

Ginmusica promotorak antolatzen du Musik & Txotx ekitaldia, eta iazko formula bera erabiliko du. Donostiatik sagardotegira autobusez joan nahi dutenek 30 euroko sarrera ordaindu beharko dute (kontzertua, afaria eta autobus zerbitzua). Soilik Petritegin sartzeko sarrera nahi dutenek 25 euroren truke loruko dute (afaria eta kontzertua). Sarrerak jada Kulturalive.com webgunean eros daitezke.



Kokoshka taldea, azken Kutxa Kultur Festibalean.

📍 [ginmusica.musika.petritegi](#)

◀ Gabonak Niña Coyote, Capsula eta Belakorekin

San Tomas jaia 25 urte egin ditu Grosen ▶

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It